



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-10-19**

VIURTEA 1.538.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Tentsioa eta istilu ugari Lasa eta Zabalaren omenezko manifestazioan

TOLOSA Audientzia Nazionalak debekatu arren ehunka lagun bildu zen Triangulon deialdiari erantzunez

ATXILOKETAK Ertzaintza behin baino gehiagotan oldartu zen manifestarien aurka eta sei lagun eraman zituen 6



Ertzaintza manifestarien aurrean jarri ziren, manifestazioa debekatzeko; tentsioa bizitu ziren. N.URBIZU

Gurea aretoa jendez lepo, Gipuzkoako Kantu Txapelketan 6



Herritarrak sinatzen. R.CALVO

«Erabakitze eskubidearen alde» sinadura bilketa egin dute

TOLOSA Atzo aritu ziren EAJ, EA, EB eta Aralar 4

Giro ezin hobea San Estebango Kultur Astearen baitan antolatu diren ume jolasetan

TOLOSA Gaur izango dute azken eguna; ekitaldi ugari antolatu dituzte 5



Altxorren bila jolasa egin zuten umeek. N.URBIZU

Landetxea
Altuena

8º Etxeak, 27 - 48298 Amerito (Bizkaia)
www.altuena.com



» Uzturretik

Iraitz Lizarraga

Iritsi da udazkena, askorentzat hain maitatua, gehienontzat triste eta malenkoniatsua; udaren azkena, argitasunaren amaiera, egunerokotasuna, hotza, bufandak, hezurretako minak, eskolara buelta, ...Ene! Gure mendiek eskaintzen diguten kolore paleta zoragari honi esker ez balitz, desgertarazteko gauzen kutxan sartuko nuke udazkena... baina... nekez topatu dezakegu udazkeneangure mendietan zehar pasiatzea baino gauza ederragorik!

Halaxe abiatu nintzen udazkeneo egun zoragarria aprobetxa-

tzeko asmotan, Ermio aldera aurreko asteburuan: hego-haizea, eguzki goxoa, kolore sorta eder hori... Udazkenarekin pakeak egiteko tan nengoen istantean... Pum! Lehenengo tiro-hotsa: Pilarikarekin batera martxan da ehiza tenporada! Ehiztariz josita daude mendiak; mota guztiak ehiztariak: tiro gutxi baina onak botatzen dituztenak, tiro asko bota arren usorik gabe itzultzen direnak, mendia gustuko dutenak, posturaino kortexe hurbiltzen direnak, zatoa eta bokatagatik soilik lizentzia ateratu zutenak... Eta okerrenak: mendian pasiatzen zoazela uso banda bat izutzen baduzu ero moduan errietan hasten direnak edo *mekaguen-laostia makurtu makurtu!* ohiukatzen dizutenak. Bai, badakit ez dela jokaera orokorra, baina aurreko asteburuko paseoa halako kondarila batek oztopatu zuen ni eta

udazkenaren arteko bake-akordioa.

Ez naiz hasiko ehizaren aldeko edo kontrako argumentuak bilatzen baina Uzturretikizeneko txoko hontatik eta Erriotik, Belkoaindik, Loatzotik...mendi tontor guztietatik errespetu pixka bat eskatuko nioke halako jendetzari (Berriz azpimarratu nahi dut badakidala hau ez dela ehiztari guztien jarrera orokorra) Zuek zeuen armak hartu eta postutik pim, pam, pum! txoriak akabatzen ibiltzeko eskubidea daukazuten moduan, mendia maite dugunok bertan lasai ibiltzeko eskubidea daukagu, udazkenarekin pakeak egiteko aitzakiarekin bada ere.

Hala... Ehiza onaian eta botatuko kartutxoak jaso! (Ekologikoak izateko kontuagatik...) Beste baterako utziko dugu ehiza bai ala ez eztabaida.

Udazken hotsak

B Blogteka eta inkesta

info

Urteko elkarbizitza plana

Samaniego Herri ikastetxeko familiak 2008/09 ikasturteko Urteko Elkarbizitza Plana abian jarri nahi dute. Horretarako datorren urriaren 29an, asteazkenean, elkartuko dira arratsaldeko 16:45etan Haur Hezkuntzako baliointza gelan.

Samaniego ikastetxea
<http://www.tolosaldeko HITZA.info/blogak/samaniego>

Udazkenean ekitaldi kultural asko egiteko ohitura dago: esaterako, Kultur Asteak. Beharrezkoak ikusten al dituzu?

Bai. %62

Ez. %19

Ekitaldien arabera. %19

«Noski baietz. Aste kulturalak nortasun bat ematen diote talde, auzo edo entitateei. Gainera, zertarako nahi genituzke irabazten ditugun jai ordu eta xoxak? Tebistako Alonsotarrak (futbol, kortexe...), Lola ta besteak patrozinatuta eta ikusteko? Izan gaitzen aktore!».

«Ni herri txiki baten bizi naiz eta holako gauzatxoak oso inportanteak iruditzen zaizkit, herriari bizia ematen diolako. Nei pertsonalki asko gustatzen zait hauetan parte hartzea. eta nerea alaba txikia da eta ere ematen diot kultur ekitaldi hauetara, umeentzako asko antolatzen dituztelako.»

«Ados nago gauza hauek garrantzitsuak direla baina imaginazio pixkat ere eskatuko nieke kultur ekitaldi hauek antolatzen dituztenei, ze azkenean urtero-urtero ekitaldi berdinak izaten dira.»

A Asteko irudia



EHBEn egoitza berria inauguratu dute Subijanan

VILLABONA «Bertsolaritzaren ortu», «bertsozaleen topaleku», «euskal ahazko tradizioaren bilgune»... Horrela definitu zuten, besteak beste, Euskal Herriko Bertsotale Elkarteke egoitza berria, Villabonako Kale Nagusiko Subijana etxean

kokatu dutena, hain zuzen. Pasa den ostegunean inauguratu zuten egoitza eta bertan ez zen inor falta; Villabonako Maixabel Arrieta alkatea, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua den Miren Azkarate, Markel Olano Gipuzkoako dipu-

tatu nagusia, Kutxako ordezkariak... eta nola ez hainbat eta hainbat bertsolari eta, orokorrean, kultura munduko aurpegi ezagun asko. Nikolas Albak egoitza berriarentzat egindako Mintzola eskultura ere bertan dago. REBEKA CALVO

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

S Soka motzean

«Batez ere gauza asko egitea dut gustuko»

SUSANA SEGUROLA ›
Saltsera

REBEKA CALVO

Susana Segurola gaztea tolosarra (1981) da. Ezagutzen dutenek badakite ez dela geldirik egoten, saltseatzea du gustuko, gauza berriak probatzea, esperientzia berriak bizi, ikasi... Une honetan, hala ere, ikus-entzunezkoen muduan ari da buru-belarri lanean.

Argazkilaritza, diseinua, marrazkigintza, zinema, musika... zer da gustuko duzun?

Guztia, gauza asko egitea dut gustuko, batez ere hori.

Zein da irakurri duzun azken liburua?

Galdera zaila da hori, liburuak hasi eta ez baitditut bukatzen, hasten ari naiz beti.

Filme bat gomendatu beharko bazenit, zein gomendatuko zenidake?

Andrei Tarkovskiyren *Stalker*.

Zergatik?

Filmearen imajina ikaragarria da eta ikusten dudan bakoitzean sentsazio desberdin eta sinestezinak sorrarazten dizkit. Zientzia-fikziozko pelikula da, baina ez pentsa estralurtarrak eta horrelakoak ikusten direnik.

Zer da artea?

Artea zeozer sentiarazten dizuna da, bat batean zerbaitekin konektatzen duzunean da, zergatia ezagutu gabe, lotura horrek ez duenean arrazoi jakinik.



RCALVO

E Eztabaida info

Voith Gorostidi etxebizitzaren inguruan zurrumurru asko entzuten ari da. Zer da zuri iritsi zaizuna? Txutxumutxu horiei zein balio ematen diezu?

■ **Olatz.** «Mamu asko piztu dira honen inguruan. Argi dagoena da oso aukera ona dela une hauetan gauzak dauden bezala horrelako zebait egokitzea. Renuntzia asko egon direla zabaldu da herrian, baina hori ez zait iruditzen Udalaren errua, gehio iruditzen zait zuek, komunikabideak, sartzen ari zareten beldurra dela erruduna. Niri txoltoa iruitzen jarraitzen dit.»

■ **«Atzera bota den bat».** «Aurreko mezuarekin filipatuta geratu naiz egia esan. nola esan daiteke txoltoa dela? niri etxe hoietako bat tokatu zitzaidan, ondorioz Udalak finkatutako baldintzetan sartzen

nintzen. Baina kuestioa da bankurajun naizenean diru eske ez didatela emango esan didatela (hitz politekin noski). Non dago arazoa hor, komunikabideetan? Edota Udalak jarritako baldintzak eta etxebizitzaren prezioak ez datozela bat? Renuntziena beldurrangatik izan daiteke kasuren batean baina ez 150 kasutan. Argi dago Olatzek ez duela arazo handirik izango hila-bete bukaerara iristeko. Niri iruditzen zait proiektua saldu zanean udalekoak hor atera zirela harro-harro eta orain gauzak ondo ez daudenean ezkatatu egiten direla.»

■ **Kanpotar bat.** «Aupa! ni enaiz tolosarra baina lagun asko ditut han eta asko ari naiz entzuten horri buruz. Aurreko debatan enaiz sartuko ez dakitelako zenbateraino diren egia esan diren gauzak. Baina badaukat ezagun bat itxaron

zerrendan azkenetarikoa zegoena eta deitu egin diote, hori bai da errealitatea. Puntu horta heldu bada asuntua iruditzen zait zerba it gaizki dijoala eta afektatuztat duinena azalpenen bat jasotzea izango zela. Non dugu duintasuna gaingur egun?»

■ **Irakurle bat.** «Propietate pribatu gutxiago eta beste plan batzuk atera beharko liriteke aurrera. Zer gertatzen da hutsak dauden etxebizitzekin? Zergatik ez da bultzatzen alkilerra? zer lortzen da hainbeste eraikitzen? hainbeste haziko al da ba Tolosa? San Estebanen ere pila bat etxe doaz, ez? Europako herrialde garatueta alkilerra bultzatzen da, eta etxebizitzarena bai da benetako eskubidea, ez luxua, hemen gertatzen den bezala. Gazte asko daude 1.000 eurotik pasatzen ez direnak. Mesedez... pentsatu pixkat besteengan.»

Produktu aukera zabala azokako egun lasaian

Azoka » Produktu ekologikoen zerrenda zabala izan zen atzokoan; perretxikoetan kanpoko espezieak izan ziren nagusi.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia hasi zen eguraldi freskoa bezala. Pixkanaka, goiza aurrera zihoala jendea Zerkausira gerturatu zen, eta giroa asko animatu zen. Eskaintza bera ere ez zen batere makala izan. Produktu asko ikusi ahal izan genuen mahaietan, bai betiko ekoizleen mahaietan, baita ere ekologikoko postuetan ere.

Hauek astero astero bertako bazarkien zerrenda zabala eskaintzen digute eta hauekin fruta ekologikoa ere bai. Atzo adibidez, sagar asko ikusi ahal izan genuen, baita ere azak, azalareak, bruselazak, letxualak, eskarolak, txikoria, kalabaza edo eta espinaka besteen artean, guztiak ere ekologikoak.

Bertako perretxikoei, astebete itxaron behar

Perretxiko zerrenda ere oso zabala izan zen, bainagehien bat kanpoko espezieekin. Oraindik ez zaigu hasi gure mendietan onddo golvea, beraz astebete edo pare bat itxaron egin beharko dugu ezazte pixkatekin...

» ATZOKO AZOKA

BERDURA

PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Erroneroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

Babarrun zuria	8,00	-
lbarrako piparra	4,00	7,00
Tomatea	2,00	4,00

Besteak

Arrautzak	1,10	2,40
Ardigazta	14,00	18,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Kuletroa	30,00	-
Nikaloa	20,00	-
Mendiko angula	16,00	-
Gibelurdina	24,00	-
Ziza horia	24,00	30,00
Onddoak	14,00	24,00

Fruta

Mizpiradia	3,00	-
Sagar gorria	1,50	-

Barazkiak (Kiloa)

Baba	3,00	4,00
------	------	------

PRODUKTU EKOLOGIKOAK


Fruta		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak (Kiloa)

Kalabaza	1,60	3,04
Baratxuria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-

Besteak

Ahuntz gazta	3,00	-
Ogia	2,55	-
Arrautzak	3,50	-



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Erabakitze eskubidearen alde

TOLOSA • Tolosaldeko EAJ, EA, EB eta Aralar alderdie-tako kideek erabakitze eskubidearen aldeko sinadura bilketa burutu zuten atzo Tolosako hainbat puntutan. Sinadurak biltzearekin batera hilaren 25an *Hitza Hitz*

lelopean Legutiora joateko autobusetan izena emateko aukera ere eskaini zuten. Auzitegi Konstituzionalak debekatutako eta Eusko Legebiltzarrak onartutako galdeketa inguruko ekimena da hau. R.CALVO

L Laburrak

2008-2009 ikasturtea hasiko dute bihar

IBARRA • Ibarroa Udalaren Gizarte Zerbitzuen sailak ohar baten bidez jakinarazi duenez, bihar emango diote hasiera 2008-2009 ikasturteari. Horiek horrela, Guraso eskolen lehen taldeak 17:15ean du hitzordua eta bigarrenak, berriz, 18:45ean, biak Kultur Etxean izango dira. Era berean, aiton-amonen eskolak bere martxa jarraituko duela argitu dute eta hauen hitzordua 15:30ean dela ere esan dute.

Osasunaren inguruko hitzaldiak Kultur Etxean

BELAUNZA • Asteartean, hilak 21, *Pentsa dezagu oinekin* hitzaldia izango da 17:00etan Belauntzako kultur etxean. Bertan, bidaiek eta oporrek osasunerako dakarten onurari buruz hitz egingo dute. Hilaren 23an ere *Etxeko arriskuak eta lehen laguntzak* hitzaldia izango da ordu eta leku berean. Honakoan etxean gerta daitezkeen arrisku eta istripuen berri emango diete bertaratuakoei.

Erretiratuen Eguna antolatu dute berriz ere

BELAUNZA • Erretiratuen Eguna antolatu dute, berriz ere, Belauntzan. Jai eguna gaur zortzi, hilak 26, izango da eta bertan parte hartzeko hilaren 23a baino lehen deitu behar da Udalera goizeetan (943 67 43 66). 12:00etan mezarra joan ostean, dantzaldien erakustaldia izango dute eta baita toka txapelketa, bazkaria eta opari banaketa Herriko Tabernan eta bertsolarien saioa ere.



Leonardo Garcia Alarcon irakaslea eskolako une batean. R.CALVO

Antzinako musika hizpide izan da Udal Musika Eskolan

Tolosa • 31 ikasleek hartu zuten parte Leonardo Garcia Alarcon klabezin-jotzaile argentinarrak eskainitako eskoletan.

une honetan Genevako Kontserbatorioan *Maestro al Cembalo* ikasgaiaren irakaslea da eta Esemble Cappella Mediterranea izeneko taldearen zuzendaria ere bada.

XVI, XVII eta XVIII. mendeak

Gaurko eskoletan, hortaz, atzo hasitako lanekin jarraituko dute, hau da XVI, XVII eta XVIII. mendeetako musikaren parametro espezi-fikoak aztertzen, eta horretarako Tomas Luis de Victoria, Peter Philip-es, Claudio Monteverdi, Andre Cardinal Destouches, Georg Friedrich Haendel eta Johann Sebastian Bachen lanak ekarriko dituzte gogora.

Musikari espezializatuena eza-gupenen arteko zubi lana landu nahi du, batez ere, irakasleak.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren deia jarraiki 31 ikasleek hartu zuten parte atzo Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolan izan zen interpretazio tallerrean. Goiz eta arratsalde izan ziren eskolak atzokoan eta gaur, berriz, 10:00etatik 14:00etara izango dira.

Irakasle lanetan Leonardo Garcia Alarcon klabezin-jotzaile argentinarra da. Eskarmentu handiko musikaria da argentinarra eta

EGUR-LANKETA

Hasiera: Urriak 6
Ordutegia: Astelehena
15:00etatik 18:00etara
edo 18:00etatik 21:00etara
Urteko kuota: 140 euro



PINTURA

Hasiera:
Irailak 28
Urteko kuota: 50 euro
(haurren kasuan materiala barne)

Ordutegia:
Helduak: Asteazkena: 16:00 - 18:00 / 18:00 - 20:00
Haurrak: Larrea 20
Asteartea: 17:15 - 18:15 / 18:15 - 19:15
Osteguna: 16:15 - 17:15 / 17:15 - 18:15 / 18:15 - 19:15

ZAHARBERRITZEA ETA ARTE APLIKATUAK

Hasiera: Urriak 24 **Ordutegia:** Asteazkena 10:00etatik 12:30era
Urteko kuota: 60 euro 15:00etatik 17:00etara

IZEN-EMATEAK:

EPEA: Urriak 31 **Non:** 943- 691655 edo 943-692100 telefonoetara deituz.

Oharra: ikastaroetan parte hartzen duten ikasleentzat Sacem-go tailerrak zabalik egongo dira uneoro, baita ikastarorik ez dagoen egunetan ere. Haurren ikastaroak Larrea 20n izango dira.

Pipix, Porrotx
eta Mari Motots

DVD berria
etxeko txikiak
jolasteko

PANPINAK



DVDa
(posterra opari)
18€



Panpina bakoitza
(txapa opari)

20€



Egin eskaria amaitu baino lehen
902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info
adierazi harpidetza kodea

hitza

Giro polita Ferialekuaren inguruan, San Estebango Kultur Astearen haur jokoetan

Kultura » Gaur azken eguna izanagatik ekitaldi ugari izango dira Tolosako auzoan; atzo umeez ederki igaro zuten eguna, eguraldia lagun.

NEREA URBIZU

Kultur Asteaz gozaten ari dira San Esteban auzoko herritarrak. Gaur izango dute azkeneko eguna, baina ezokerragoa. Atzoko egunarekin giro bikaina izan zen, bai eguraldiari eta baita kaleko giroari dagokionez. Urtero egiten duten haur eta gaztetxoentzako Altxorraren bila jokuak aurten ere arrakasta izan zuen.

Talde desberdinetan banatuta hantxe ibili ziren San Estebango auzokiderik gazteenak, inguruko enpresen eta etxeen izenak ikasten; hau nahi gabe, jolasean aurrera egiteko beharrezkoa baitziren hainbat datu. Hainbat trebezia ere baliatu behar izan zituzten aurrera egiteko, hala nola, paper piloten lasterketa: partaideek leku berdinetik hasita paperez egindako pilota haizearekin mugitu behar zuten, eta marra bateraino ailegatuarazi behar zen. Haizea bota eta bota, azkenean gorri-gorri eginda, haurrek bukatzen zuten proba bixi hau.

Margotzeko aukera ere bai

Ferialekuan bertan, Altxorraren Bila jolasten ez zutenek margotzeko eta marrazteko aukera izan zuten. Hainbat guraso haurrei laguntzen aritu ziren margoak eskutan hartuta. Ondano ere, haurren arte-

an banatzeko jostailu eta material erakargarriak zeuden. Parte ez hartzeko moduan zeuden txikiak...

Mus Txapelketa elkartean

Giro serioago batean (barre askorik ez zen entzuten), elkartean mus txapelketan ari ziren auzotar talde bat. Garaikurrak ondoan, presio apur bat sentitu zitekeen bertan...

Gaur azken eguna

Gaur da San Estebango Kultur Asteko azken eguna eta musikarekin jaikiko dira bertakoak, txistularien dianarekin batera. Trikitixa entzuteko aukera izango da ere auzoko baserrietan. Meza San Frantzisko elizan izango dute, auzoko hildakoen alde.

Toka txapelketa izango da eguerdian eta babarrun-jatea izango dute bazkaltzeko garaian. Bertan, Goteraseri (Jabier Ugarte) omenaldia egingo diote, eta Ttonktor elkarteak abestia kantatuko dio. Ondoren, Kultur Asteko azken ekitaldi bezala, dantzaldia izango da Koxkorrena orkestrarekin. Aurtengo Kultur Asteak itxura polita izan du: berriz ere bertakoen parte-hartzea ezinbestekoa izan da eta bertakoek gozatzeko aukera izan dute.



Elkartean mus txapelketa egin zuten; bikoteek gogor jokatu zuten garaikurra. N. URBIZU

» EGITARAUA

- **09:00.** Diana herriko txistulariekin.
- **10:00.** Trikitixa auzoko baserrietan.
- **11:00.** Meza nagusia auzoko hildakoen alde. Elizkizuna San Frantzisko parrokian izango da.
- **12:00.** Toka txapelketa gizezko-emakumeentzat auzoko txarangak alaituta.
- **14:00.** Auzoko babarrun jatea egingo da. Honen ostean, Goteras tolosarraren omenez, Ttonktor elkarteak berari eskainitako abestia aurkeztuko dute.
- **Ondoren.** Dantzaldia Koxkorrena orkestrarekin.



Etzeko gazteenak margotzen ere aritu ziren Ferialekuan. N. URBIZU



Alzateren erakusketa, inauguratuta

TOLOSA » Vanessa Alzatek herenegun aurkeztu zuen bere bakarkako lehen arte erakusketa Aranburu jauregian. Jende ugari hurbildu zen iluntzean eginiko inaugurazio ekitaldira, artezale zein artistaren gertu-

koak. Erakusgelan ikus daitezke pintura ugari, collageak, eskultura batzuk eta aguafuertean eginiko grabatuak, besteak beste. Halaber, Leitza kaleko 4. solairuan interbentzio bat egin du tolosarrak. REBEKA CALVO

BERRIren edizio digitala diseinatzeko/programatzeko lanpostua bete zeko pertsona bat behar da. (Eref. 200810 EH-DP)

Honako ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lenguaiei eskarmentu izatea.
- XHTML eta CSStan marrazteko esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

Eskaritzen da:

- 12 hilabeteko kontrata bizi daterik.
- Lanari berehalako hasiera izateari.

Bidali curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz, iriaren 22a baino lehen.



Eskualdeko ahotsak kantu txapelketan

VILLABONA • Atzo jendez lepo zegoen Gurea aretoak Gipuzkoako Kantu Txapelketa hartu zuen. Bertan 10 parte-hartzaile izan ziren. Eskualdeko lehenak 4. posatuan atera ziren. Leirek eta Iñarrek (irudian) harrera oso ona izan zuten eta txalo zaparrada jaso zuten eskualdeko bi abeslariek. Abestia Iñar irurarrak sortu du eta bera arduratu zen pianoa jotzeaz. Bateria laguntza ere izan zuten. Tolosako Iñaki Larreaeren eskutik. Eskualdeko beste lau parte-hartzaile ere aritu ziren: Maialen Etxeberria (Berastegi), Oihane Sarasola (Ibarr), Iñaki Barriola (Berastegi) eta Kristina eta Leire (Villabona). N.U.

Politika » Ertzaintza manifestarien aurka oldartu zen eta Tolosaldeko sei lagun atxilotu zituen.

ERREDAKZIOA

Istilu ugari eta tentsioa izan ziren atzo Lasa eta Zabalaren erailketaren 25. urteurrenaren harira, haien omenez deituta zegoen manifestazioan. Jende ugari, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak eginko deialdiari erantzunez, Triangulon bildu zen, bezperan Baltasar Garzon Espainiako Auzitegia Nazionalako epaileak manifestazioa legez kanpo uzteko erabakia berri eman zuen arren.

Haien parean Ertzaintzako agente ugari azaldu ziren manifestazioaren debekua betetzeko prest (lauzpa bost furgona). Hain zuzen, han bildutako sei sakabanatzeko agindua eman zieten, herritarrek Lasa eta Zabalaren argazkiak atera zituztenean. Hauek ezezkia eman eta orduan manifestarien aurka oldartu zen Ertzaintza. Tentsio uneak izan ziren eta, besteak beste, Tolosaldeko sei lagun atxilotu zituzten.

Lehen kargaren ondorioz, bildutako jendea Alde Zaharrerantz joan zen, eta ertzainak atzetik joan

Lasa eta Zabalaren omenezko manifestazioan tentsioa eta istiluak



Jende ugari Joxi eta Joxeanen irudiak atera zituen eta protestan hasi ziren ertzainen jarreraren ondorioz. N. URIBIZU

ziren. Ostiko eta jipoi asko ikusi ahal izan ziren. Behin baino gehiagotan oldartu zen Ertzaintza.

Dignidad y Justiciaren eskaera

Esan bezala, Lasa eta Zabalaren erailketa eta auzia salatzeke asmoz atzoko manifestazioa Baltasar

Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak debekatu egin zuen herenegun. Dignidad y Justicia elkarteak eskatuta izan zen debekua. Baltasar Garzonek atzoko manifestazioa «Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Askatasuna legez kanpoko erakunde-

ek» deitua zen, «beraz, ilegala zen».

Hain zuzen ere, atzo iluntzeko manifestazioa debekatu izana eta Lasa eta Zabalaren kasuan auzipe-ratuak izan zirenak kalean direla salatzeke, gaur agerraldia egingo dute Triangulon, 12:00etan. Agerraldi honetan gaineratuko dute atzo Ertzaintzak Triangulora hurbildu ziren herritarren aurrean izan zuen jarrera.

Duela 25 urte gertatu zena

1983ko urriaren 16ean, goizaldean autoaren bila zihoazela, GALen bi kidek Joxean Lasa eta Joxi Zabala, errefluxiatu tolosarrak bahitu zituzten Lapurdiko hiriburuan, Baiona Ttipian. Tolosako bi gazteekin zer gertatu zen 1995. urtean eta 2000. urtean argitu zen; Lasa eta Zabalaren gorpuk identifikatzean eta errudunetarik bost zigortzean.

1983ko urriaren 17an, Lasak eta

Zabalak hartu behar zuten autoa ez zela mugitu ikustean, ibilgailuaren jabeak desagerketaren berri eman zuen. 80. hamarkadan «gerra zikina» gori-gorian zegoen eta bitolosarren bahiketasegida egora horren barruan kokatu zen.

1984ko urtarrilaren 21ean, ezezagun batek Alacante Irratira deitu zuen GALen izenean hitz egiten zuela esanez. Honek, aurreko egu-

Gaur agerraldia egingo dute Triangulon 12:00etan, atzoko gertakariak salatzeke

nean bi euskal gazteak Alacanteko paraje batean hil zituztela aipatu zuen.

Joxi Zabala eta Joxean Lasa bahitu eta hiltzeagatik gutzira 365 urteko espetxe zigorra ezarri ziren Espainiako Auzitegi Nazionalak 2000. urtean lau Guardia Zibila eta politikari bati. Gaur egun, urte horretan epaituak izan ziren guztiak kalean aurkitzen dira.

Errudunak, aske

Espainiako Auzitegi Nazionalak aurrera eramane zuten epaiketa Lasa eta Zabala kasua zela-eta, eta politiko eta guardia zibil hauek zigortu zituzten.

Hauek dira zigorra jaso behar zutenak: Enrique Rodríguez Galindo (75 urteko espetxe zigorra. Beteak: 5 urte eta 5 hilabete); Julien Elgorriaga (75 urteko espetxe zigorra. Beteak: urtebete eta hamar hilabete); Angel Vaquero (73 urteko zigorra. aske dago); Enrique Dorado (71 urteko zigorra. 2002an irten zen espetxetik) eta Felipe Bayo Leal (71 urteko zigorra. 2002. urtean kalera irten zen).

Iragarki laburrak

LANA

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako edota umeak zein edadeko jendea zaintzeko esperientziadun pertsona eskaintzen da. 695 715 373.

BESTEAK

■ **Ikusentzunezkoak.** Zure LP, cassette eta VHS kuttunak CDra pasatzeko prest nago. Deitu 943 69 4110 edo atxega@teletel.es-era idatzi.

SALEROSKETA

■ **Motorra.** KYMCO, 125 c.c., 2006. urteko motorra salgai. 6.600 km. Oso egoera onean. 665 738 525.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai ikaztegiatan. Herriaren erdigunean kokatua. Ilogailua eta bi balkoi ederrekin. Deitu iluntzeetan 628 698 807 edo 666 615 766 telefono zenbakietara.

■ **Trikitixa.** Si bemol tonuko

trikitixa erosiko nuke. 943 69 4110 edo atxega@teletel.es.

ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Garaje itxi bat alokatzen da Tolosako Triangulo plazan. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 677 000 005.

■ **Pisua.** Emakume batek pisua alokairuan hartuko luke. 2-3 logela eta balkoiarekin, Tolosaldean. 658 73 18 86.



Dantza Klasikoko klaseetan ikasleek baletaren oinarriko pausoak ikasten dituzte. HARRIET BELLOSO

Kultur ikastaroen baitan, dantza klasikoak arrakasta handia du; auren 160 lagunek eman dute izena eta asko itxaron zerrandan geratu dira; Itziar Urruzola eta Katixa Perea dira irakasleak.

Dantza klasikora gerturatuz

HARRIET BELLOSO

Ikasturte berriarekin Tolosako Kultur Etxean eta Musikako Eskolan antolatzen diren kultur ikastaroak itzultzen dira. Adin guztietara irekita daude eta bertan ikasleek margolaritza, interpretazioa, musika edo dantza ikasteko aukera dute. Azken urteetan arrakasta gehien izan duen tailerretako bat Dantza Klasikoarena izan da. Duela hamabi urte herrian baleta zabaltzeko asmoarekin eratu zen eta momentu honetan ikasle gehien dituen ikastaroetariko bat da. Bere hastapenetan dantza tailerra bezala lan egiten zuen baina egun dantza eskola bezala funtzionatzen du, dantzak jendeak uste duena baino garrantzia gehiago duela erakutsiz. Denborarekin herriko umeak baleta ezagutzen joan dira eta eskolaz kanpoko jarduerak kirolean amaitzen ez direla argi geratu da.

Ikasle ugari

Dantza klasikoaren praktika asko hedatu da Tolosako umeen artean. Hasi berri dugun ikasturte honetan inoiz baino ikasle gehiago egongo dira, 160, eta jende asko ikastaroan parte hartzeko lekurik gabe geratu da. Arrakasta honen sekretua klaseen giro eta maila paregabeen egon daiteke, urte hauetan ikastaroa utzi duten umeen kopurua oso baxua baita.

Lau urte betetzen ditugunean dantza klasikoak ikasten hasi gaitzke. Jokoen eta ariketen bidez

umeek beraien gorputza ezagutzen hasten dira eta psikomotritate lantzen dute. Fase honi aurre-dantza deitzen zaio eta baletaren ezaugarri nagusiak ikasteko balio du. Sei urte betetzen dituztenean barrako ariketak egitera pasatzen dira eta klaseetan mugimendu konplexuagoak egiten hasten dira. Zaharragoak egiten diren heinean ikastaroen mailaigo egiten eta azkenean maila altuko ikuskizunak eskaintzeko gai bihurtzen dira.

Momentu honetan hiru talde aurkitzen dira ikastaro honen barruan. Lehenengoan lau eta zazpi urte bitarteko umeak daude eta irakaslea Itziar Urruzola da. Bigarren taldean zortzi urte baino gehiago duten umeak daude eta talde honen irakaslea Katixa Perea da. Azken taldean ikasle beterranok, hamazazpi eta hemezortzi urte bitartekoak, aurkitzen dira eta klaseetan dantza klasikoaz gain dantza garaikideak ere lantzen dituzte. Musika Eskolanez dago toki eta denbora askorik klaseentzat eta ordutegiak adinaren arabera zehazten dira. Lehenengo bi taldeek ordubeteko bi saio egiten dituzte eta garaikidekoek aldiz ordu terdiko hiru, hauen maila altuagoa baita.

Guztira hamahiru klase eratu dira ikasturte honetan, azken urteetan egon den kopuru handiena. Normalean hamabost pertsonetako multzoak osatzen dira, erraz maneiatzeko kopurua delako eta

klaseak lasaia erakutsi daitezkeelako. Gehiengo lau eta zazpi urte bitarteko umeak dira, eta nahiz eta arraroa irudit, mutilak ere dantza klasikoak praktikatzeko gustuko dute. Katixa Perezek zortzi urte gorako umeekin lan egiten du eta bere ustez «umeen eta helduen arteko desberdintasunak oso handiak dira. Umeekin pazientzia gehiago eduki behar da baina oso esker onekoak dira». Ikasle zaharragoekin lan egiteko era guztiz desberdina da eta emaitzak segituan ikusten dira. Hala ere, bi taldeak oso politak dira eta jendea oso gusturajoa ten daklaseara».

Klase disziplinatua

Dantza klasiko edo garaikidea ikasteko lan asko egin behar da eta klaseetan disziplina mantentzea beharrezkoa da. Hori da hain zuzen ere umei eta gazte askori zailena egiten zaiena. Klaseetan serio tasuna da nagusi eta hasieran ez da erraza ohitzea, baina azkenean normala bezala ikusten dute. Kurtso hasieran arau batzuk zehazten dira eta hauen bidez umeek gauza berriak lasaia ikasten dituzte.

Nahiz eta ikastaroaren helburua dantza klasiko menderatzea den, ikasturtearen zehar irakasleek dantza berriak praktikatzeko proposamenak jasotzen dituzte. Umeek beraientzat dibertigarriak izan daitezkeen dantzak egin nahi dituzte eta orokorrean telebistako filmetan eta programetan ikusten

duena egin nahi dute. «Batzuetan beste dantza estiloetako elementuak sartzen ditugu gure dantzetan, urte amaierako emanaldian batez ere, baina umeak dantza klasiko lantzen ari direla ez dute ahaztu behar», azaldu du Katixa Perea. Balet klasiko beste dantza batzuk ikasteko oinarria izan daiteke, bertan oinarriko mugimendu ugari lantzen baitira. «Klaseetan balet klasikoaren ezaugarriak ondo ikasten badituzte etorkizunean edozein dantza ikasteko gai izango dira. Gu ahal dugun



Ikasturtearen zehar kurtso amaierako emanaldia prestatzen dute. H.B

guztia irakasten saiatzen gara eta hemen amaitzen dutenean nahi badute beste dantza batzuk ikasten hasi daitezke», azaldu du irakasleak.

Emanaldiak ere

Ekainean kurtsoaren zehar ikastakoa erakusteko momentua iristen da eta horretarako emanaldi berezi bat antolatzen dute Tolosako Leidor zineman. Umeentzako oso memento berezia izaten da, beraien gurasoei ikasi duten guztia erakusteko irrikari egoten baitira. Lan asko eskatzen duen ikuskizuna da eta prestatze lanak (musika hautatu, jantziak egin, gidioa idatzi etab) ikasturte guztiaren zehar luzatzen dira.

Emanaldia bi zatitan banatzen da: lehenengoan koreografia batzuk egiten dira eta bigarrenean baletaren ezaugarriak izango dituen ipuin bat antzetzten da. «Azken urteetan talde asko eduki ditugu eta amaierako oso luzea egiten zen, beraz urterto zati bakarra egitea erabaki genuen. Aurten ipuina egingo dugu, baina oraindik ez gara lanean hasi», azaldu du Perezek.

Zortzi urte gorako taldeak ere urterto ospatzen den Kontxako Barandako Erakustaldian parte hartzen du. Goi mailako taldea erakustaldi ugarietan egon da eta azken urteetan Lasarten antolatu den Eskolen Erakustaldian parte hartu du.

Etorkizunera begira

Etorkizunean lan dinamika hau mantentzea beharrezkoa izango da. Aurten kanpoan geratu diren umeri leku bat egitea izango da ikastaroko arduradunen helburu nagusia. Klaseetara joateko eskaria asko igo da eta datorren urtean agian talde gehiago eratuko dira arazo honi aurre egiteko. Emanaldiei buruz, taldearen atek irekita mantentzen dira eta erakustaldi bat egiteko gonbidapena jasotzen badute gustura joango dira Tolosako dantzaren maila paregabea erakustea.



20°
15°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 19°
HOTZENA 15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: OS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Asteasu.** Zaldi ibilaldia 09:00etan hasita Olarra Goikoa jate txearren inguruan; 11:30ean ha-maiketako Asteasu, 14:30ean bazkaria Olarra Goikoa, 17:30ean zaldi lasterketa Antxotako zelain.
- **Villabona.** Hutsunea betez el-karteak *Autoestima umorearen bi-tartez* tailerra antolatuta du urriaren 19rako, 10:00etatik 14:00etara. Izena emateko 943 57 19 68 (mai-ka) edo 943 69 42 97 (Ana) zen-bakietara deitu daiteke.
- **Zizurkil.** XI. Azoka Berezia: base-riko produktua eta artisauen postuak. 52 postu izango dira.

Zinema

- **Tolosa.** *La isla de Nim* filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan. 'Los girasoles ciegos' 19:30ean eta 22:00etan; bihar, (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur**
- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo ka-lea, 2. 943 670128.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Na-gusia, 112.
- **Iruztzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.
- Bihar**
- **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 673649.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Poker estrategiak nagusi Beotibarren

TOLOSA ● Poker kanporaketa izan zen atzo arratsaldean Beotibar pilotalekuan. Hamarreko taldeetan egin zuten kanporaketa txapelketa eta bertako irabazleek datorren astean Donostiako Kurtsalean izango den Espainiako Poker Txapelketan hartuko dute parte. Txapelketan Euskal Herriko leku askotatik iritsitako 114 partaide izan ziren; Bilbotik, Irundik, Donostiatik... 8-10 bat pasako dira Espainiako Txapelketara, antolatzaileen arabera. N.URBIZU

PEUGEOT
107



TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban Auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno: 943-650337 Fax: 943-651938
e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

